# giza eskubideak, biktimei laguntzea, bakea

Herritar-balioak, errespetua eta bake-kultura sustatzea, eta giza-eskubide guztiak pertsona guztientzat direla defendatzea,eta, horrenbestez, indarkeria ezestea, eta indarkeriaren biktimei gizartearen onirizpena agertzea

# derechos humanos, atención a las victimas, paz

Fomento de los valores cívicos, del respeto y de la cultura de la paz y de la defensa de todos los derechos humanos para todas las personas, con lo que supone de rechazo del uso de la violencia y el reconocimiento social de las víctimas de la misma

EUSKO JAURLARITZA
GOBIERNO VASCO

eitb
euskal irrati telebista

eitb
euskal irrati telebista

EUSKO JAURLARITZA
GOBIERNO VASCO

# AURKIBIDEA


•> **SARRERA**

•> **2008KO EKINTZA-PLANA**

••> ZABALKUNDEA ETA DIBULGAZIOA.
- EITBREN 2008KO INFORMAZIO-AGENDA

••> SENTSIBILIZATZEKO KANPAINAK ETA INFORMAZIO-PRODUKZIOAK
- Publizitate-kanpainak
- Barneko informazio-produkzioa
- EITBren programa bereziak
- Filmak eta dokumentalak ematea

••> HAUR-PROGRAMAZIOAN BERARIAZKO ARRETA

••> BIKTIMEK GIZARTE BARRUAN TOKIA ETA ONIRIZPENA IZAN DEZATELA SUSTATZEA

••> INFORMAZIO-TRATAMENDUARI BURUZKO DOKUMENTU PROFESIONALA

••> EBALUAZIOA ETA GARDENTASUNA


# ÍNDICE


•> **INTRODUCCIÓN**

•> **PLAN DE ACTUACIÓN 2008**

••> DIFUSIÓN Y DIVULGACIÓN.
- AGENDA INFORMATIVA EITB 2008

••> CAMPAÑAS Y PRODUCCIONES INFORMATIVAS DE SENSIBILIZACIÓN
- Campañas de publicidad
- Producción Informativa propia
- Especiales EITB
- Emisión de películas y documentales

••> ATENCIÓN ESPECIAL A LA PROGRAMACIÓN INFANTIL

••> IMPULSAR LA PRESENCIA, Y EL RECONOCIMIENTO SOCIAL DE LAS VÍCTIMAS

••> DOCUMENTO PROFESIONAL SOBRE EL TRATAMIENTO INFORMATIVO

••> EVALUACIÓN Y TRANSPARENCIA

# Sarrera

# introducción

Giza-eskubideak nahitaezko erreferentzia dira antolaketa sozial eta politikorako ereduetan, zutabeak justizia, askatasuna, berdintasuna eta elkartasuna izatea nahi bada.

Horregatik, herritarrei giza-eskubideen gaineko heziketa, prestakuntza eta informazioa ematea nahitaezkoa da pertsonen eta komunitateen artean harreman iraunkor eta armoniatsuak ezar daitezen, eta elkar ulertzea, errespetua, tolerantzia eta bakea susta daitezen.

Helburu komun horiek izanda, Eusko Jaurlaritzako Justizia, Lan eta Gizarte Segurantzako Sailak eta Euskal Irrati Telebista (EITB) herri-erakundeak lankidetza-hitzarmen bat sinatu zuten 2007ko maiatzaren bian, komunikabideetan gauza zedin Euskadiko Giza-Eskubideen eta Bakearen gaineko Heziketarako Ekintza-Plana.

EITBren zeregina bultzagile izatea da, bultzada ematea honako ildo honetatik datozen ekimenei: herritar-balioak, errespetua eta bake-kultura sustatzea, eta giza-eskubide guztiak pertsona guztientzat direla defendatzea, eta, horrenbestez, indarkeria ezestea, eta indarkeriaren biktimei gizartearen onirizpena agertzea.

Los derechos humanos constituyen una referencia imprescindible para cualquier modelo de organización social y política que aspire a constituirse sobre la justicia, la libertad, la igualdad y la solidaridad.

Por ello, la educación, la capacitación y la información pública en materia de derechos humanos son imprescindibles para establecer y promover relaciones estables y armoniosas entre las personas y las comunidades y para fomentar la comprensión mutua, el respeto, la tolerancia y la paz.

Compartiendo estos objetivos el Departamento de Justicia, Empleo y Seguridad Social del Gobierno vasco y el Ente Público Euskal Irrati Telebista (EITB) establecieron con fecha 2 de mayo de 2007 un convenio de colaboración con el objetivo de materializar en los medios de comunicación el Plan vasco de Acción en la esfera de la Educación en Derechos Humanos y por la Paz.

El papel a desarrollar por EITB ira encaminado a seguir impulsando aquellas iniciativas que incluyan el fomento de los valores cívicos, del respecto y de la cultura de la paz y de la defensa de todos los derechos para todas las personas, con lo que supone de rechazo del uso de la violencia y el reconocimiento social de las víctimas de la misma.

Hari horretatik, EITBk urteroko plangintza bat prestatuko du, Euskal Autonomia Erkidegoko herritar guztiei zuzendua. Plangintzak 2008an informazio-lehentasun hau izango du: gizartea jakitun jartzea eta sentsibilizatzea giza-eskubideen errespetuari buruz, bakearen sustapenari buruz, eta, batik bat, terrorismoaren biktimen onirizpenari eta informazio-tratamenduari buruz.



Ekintza-Plan bat zehaztuko da. Planak, alde batetik, 2008ko Informazio-Agenda jasoko du, xehetasun hauekin: informazio-jarraipenak eta programa bereziak, formatu ezberdinetan hedabide ezberdinetan emateko. Beste alde batetik, barneko heziketa- eta diagnostiko-programa bat jasoko du. Horren amaieran dokumentu profesional bat landuko da, giza-eskubideen, terrorismoaren biktimen eta bake-kulturaren inguruko gaiak erabiltzeko irizpideak finkatzeko.

Halaber, Ekintza-Planaren jarraipena egingo da, beharrezko diren aldaketak egin ahal izateko, eta, horrela, finkaturiko helburuei erantzun eta etorkizuneko ekintzak planifikatu ahal izateko.

En esta línea, EITB llevará a cabo una planificación anual dirigida al conjunto de la ciudadanía de la Comunidad Autónoma de Euskadi y que plantea como prioridad informativa para 2008, la difusión y sensibilización social en el respeto a los derechos humanos, la promoción de la paz y, en particular, al reconocimiento de las victimas del terrorismo y el tratamiento informativo a las mismas.

Se establece un Plan de Actuación que recoge la Agenda Informativa para 2008, con acciones de seguimiento informativo y programas especiales en distintos formatos para su difusión a través de los diferentes canales de comunicación. así como un programa de diagnóstico y formación interno que culminaría con la elaboración de un documento profesional que establezca los criterios sobre el tratamiento de los temas relacionados con los derechos humanos, las victimas del terrorismo y la cultura de la paz.

Asimismo, se establece un seguimiento del Plan de Actuación que permita realizar las modificaciones necesarias para dar respuesta a los objetivos marcados y planificar las acciones futuras.

# 2008ko Ekintza-Plana

# Plan de actuación 2008

## ZABALKUNDEA ETA DIBULGAZIOA. EITBREN 2008KO INFORMAZIO-AGENDA

EITBren 2008ko Informazio-Agendan lehentasunetako bat da giza-eskubideekin, biktimekin eta bake-kulturarekin lotutako ekitaldirik aipagarrienen jarraipena egitea eta zabalkundea ematea.

EITBk dokumentu honetan zehaztuko du zein ekitaldi izango diren lehentasunezkoak informazioan. Gizartean zabalkundea emateko helburuarekin,kasuan-kasuan egoki den formatua erabiliko da (albistea, erreportajea, elkarrizketa, debatea, e. a.), eta EITB taldearen euskarri guztiak erabiliko dira: telebista, irratia eta Internet.

Informazio-Agenda honen izaera irekia da, bertara ekarri beharko baitira esandako gaien harira urtean zehar gertatzen diren albisteak.

## DIFUSIÓN Y DIVULGACIÓN. AGENDA INFORMATIVA EITB 2008

La Agenda Informativa de EITB 2008 establece como prioridad el seguimiento y difusión de los acontecimientos más relevantes relacionados con los derechos humanos, la atención a las víctimas y la cultura de la paz.

EITB detalla en el presente documento aquellos hitos que serán objeto de prioridad informativa. Para su difusión a la sociedad se utilizarán los formatos de comunicación adecuados a cada acontecimiento (noticias, reportajes, entrevistas, debates, etc), así como todos los soportes de difusión del grupo EITB: Televisión, Radio e Internet.

Esta Agenda Informativa tiene un carácter abierto ya que deberá de incorporar los nuevos hechos noticiables que, en relación a los asuntos reseñados, se produzcan durante el próximo año.

## INFORMAZIO-AGENDA

- •> IV. Bake-Astea, Bilbon (2008ko urtarrila - otsaila).
- •> Biktimen Legea tramitatuko da Eusko Legebiltzarrean (2008ko otsaila-martxoa).
- •> Terrorismoaren Biktimen Europako Eguna: 2008ko martxoaren 11a.
- •> Giza-Eskubideen gaineko VI. Zinemaldia, Donostian, 2008ko apirilaren 18 - 25.
- •> Giza-Eskubideen Nazioarteko Biltzarra, Eusko Jaurlaritzako Justizia, Lan eta Gizarte-Segurantzako Sailak antolatua, 2008ko ekainean.
- •> Bakearen Nazioarteko Eguna: irailaren 21a.
- •> René Cassin saria, Eusko Jaurlaritzak emana Giza-Eskubideen sustapen, defentsa eta zabalkundean konpromisoa erakutsi duten pertsonei edo taldeei.

## AGENDA INFORMATIVA

- •> IV Semana de la Paz en Bilbao (enero-febrero).
- •> Tramitación de la Ley de Víctimas en el Parlamento Vasco (febrero-marzo).
- •> Día Europeo de las Víctimas del Terrorismo. 11 de marzo de 2008.
- •> VI Festival de Cine y Derechos Humanos a celebrar en Donostia del 18 al 25 de abril.
- •> Congreso Internacional sobre los Derechos Humanos, organizado por el Departamento de Justicia, Empleo y Seguridad Social del Gobierno Vasco en el mes de Junio y constitución del Consejo Consultivo de Educación en Derechos Humanos y por la Paz.
- •> Día Internacional de la Paz. 21 de septiembre.
- •> Premio René Cassin otorgado por el Gobierno Vasco a aquellas personas o colectivos que con su trayectoria personal dan testimonio de su compromiso en la promoción, defensa y divulgación de los Derechos Humanos.

- Giza-Eskubideen II. Saria, Donostia Hiriak emana.
- Terrorismoaren biktimei buruzko erakusketa, Eusko Legebiltzarraren ekimenez.
- 2008ko Bakearen Nobel Saria.
- Arte eta Bake Jardunaldiak, Gernika Gogoratuz-ek antolatuak 2008ko azaroko.
- Indarkeriarik gabeko jolasen aldeko kanpaina, Gesto Por La Pazek abendu guztietan antolatua.
- Giza-Eskubideen Nazioarteko Eguna. Eusko Jaurlaritzaren 2008-2011ko Bake-Heziketarako Planaren lehen ebaluazioa. Abendua.
- Eusko Legebiltzarrak Cristina Iglesias eskultoreari agindutako monolitoaren inaugurazioa.

- II Premio sobre Derechos Humanos de la ciudad de San Sebastián.
- Exposición sobre víctimas del terrorismo promovida por el Parlamento Vasco.
- Concesión del Premio Nobel de la Paz de 2008.
- Jornadas de Arte y Paz organizadas por Gernika Gogoratuz en el mes de noviembre.
- Campaña de juegos no violentos, llevada a cabo anualmente por Gesto por la Paz en el mes de diciembre.
- Día Internacional de los Derechos Humanos. Primera evaluación del seguimiento anual del Plan Vasco de Educación para la Paz (2008-2011). (Diciembre).
- Inauguración del monolito de la escultora Cristina Iglesias encargado por el Parlamento Vasco.

## SENTSIBILIZATZEKO KANPAINAK ETA INFORMAZIO-PRODUKZIOAK

Informazio-Agendan jasotako ekitaldiez gainera, EITBk 2008ko lehen kausari indar handiagoa ematearren, kanpaina eta informazio-produkzio bereziak emango ditu, gizartea areago sentsibilizatzeko asmoz.

### Publizitate-kanpainak

2008. urtean hiru sentsibilizazio-kanpaina egingo dira, komunikazio-euskarri gisa publizitatea erabiliz.

- •> 2008ko apirila: Biktimekiko elkartasuna.
- •> 2008ko iraila: Bake-Kultura.
- •> 2008ko abendua: Giza-Eskubideak.

## CAMPAÑAS Y PRODUCCIONES INFORMATIVAS DE SENSIBILIZACIÓN

Además de los hitos recogidas en la Agenda Informativa, EITB reforzará esta causa prioritaria para 2008, con la difusión de campañas y producciones informativas especiales encaminadas al logro de una mayor sensibilización de la sociedad.

### Campañas de publicidad

Durante 2008 se llevarán a cabo tres campañas de sensibilización social utilizando la publicidad como soporte de comunicación.

- •> Abril: Solidaridad con las víctimas.
- •> Septiembre: Cultura de la Paz.
- •> Diciembre: Derechos Humanos.

## Barneko informazio-produkzioa. EITBren programa bereziak

- •> Biktimen omenaldiak: EUDEL Euskal Udalerrien Elkartearekin batera, biktimei omenaldia eta onirizpena agertzeko ekitaldi garrantzitsuenak zein diren zehaztuko da. EITBk informazio-materialen produkzio berezia egingo du, telebistaren, irratiaren eta Interneten bidez zabaltzeko.
- •> Zuzenean ematea 2008ko maiatzean biktimei omenaldia eta onirizpena agertzeko Erakundeek egingo duten ekitaldia.
- •> "24 ordu bakearen alde". EITB Taldearen hedabide guztien produkzio monografikoa, irailaren 21eko Bakearen Nazioarteko Egunarekin bat egiteko.
- •> Giza-Eskubideen gaineko Foruma. Irrati eta telebista bidezko debatea, giza-eskubideen, biktimei emandako laguntzaren eta bakearen gainean.

## Producción Informativa propia. Especiales EITB

- •> Homenajes a las víctimas. En colaboración con la Asociación de Municipios Vascos (EUDEL) se identificarán las principales acciones de homenaje y reconocimiento a las víctimas. EITB llevará a cabo una producción especial de diferentes materiales informativos para su difusión a través de los distintos medios, televisión, radio e internet.
- •> Emisión en directo del Acto institucional de homenaje y reconocimiento a las víctimas previsto para el mes de mayo.
- •> "24 Horas por la Paz". Producción monográfica en los diferentes medios del Grupo EITB coincidiendo con el Día Internacional de la Paz el 21 de septiembre.
- •> Forum Derechos Humanos. Debate y programación especial en radio y televisión sobre los derechos humanos, la atención a las víctimas y la paz.

- •> Euskaditik kanpoko biktima-elkarteek egiten duten lanari buruzko erreportajea, Terrorismoaren Biktimen Europako Eguna dela eta.
- •> Gernikako Bakearen Museoko erakusketen informazio-jarraipena.

- •> Reportaje informativo sobre el trabajo que desarrollan las asociaciones de víctimas fuera de Euskadi con motivo del Día Europeo de las Víctimas del Terrorismo.
- •> Cobertura informativa a las exposiciones del Museo de la Paz de Gernika.

## Filmak eta dokumentalak ematea

- •> "La noche de..." saioak "La vida es bella" filma emango du Bilboko IV. Bake-Astea egiten den egunetan.
- •> "Hotel Ruanda" emango da Donostiako Giza-Eskubideen gaineko VI. Zinemaldia egiten den egunetan.
- •> Telebistan barne-produkzioko dokumental hauek emango dira: "Corazones de hielo", Hombres de guerra, hombres e paz", "Vidas en construcción" eta "Sin vendas en la memoria".

## Emisión de películas y documentales

- •> "La noche de..." emitirá la película "La vida es bella" durante las fechas de celebración de la IV Semana por la Paz de Bilbao.
- •> Emisión de la película "Hotel Ruanda" coincidiendo con el VI Festival de Cine y Derechos Humanos en Donostia.
- •> Difusión televisiva de los documentales de producción propia: "Corazones de hielo", "Hombres de guerra, hombres de paz", "Vidas en construcción" y "Sin vendas en la memoria".

## HAUR-PROGRAMAZIOAN BERARIAZKO ARRETA

Herritar-balioek, errespetuak, tolerantziak eta bake-kulturak berariazko arreta izango dute, aurrerantzean ere, EITBren haur-programazioan. Proiektu hau, Betizu Klubaren bitartez, 2008. urtea baino harago doa, EITBren betekizun eta bereizgarri iraunkorra izan dadila nahi da eta.

- Eusko Jaurlaritzako Heziketa-Sailarekin batera, eskola-umeen artean herritar-balioak sustatzeko ekimenak diseinatuko dira.
- Betizu Klubak programa berezi bat prestatuko du, azaroan Donostiako Udalak Haurren Giza-Eskubideen Egunean antolatzen duenarekin bat eginda.
- Umeen Gabonetako Parkeari berariazko informazio-tratamendua emango zaio, Eusko Jaurlaritzako Justizia, Lan eta Gizarte-Segurantzako Sailaren standean antolatzen diren ekitaldien bitartez.

## ATENCIÓN ESPECIAL A LA PROGRAMACIÓN INFANTIL

El fomento de los valores cívicos, del respeto, la tolerancia y de la cultura de la paz seguirán siendo objeto de especial atención en toda la programación infantil de EITB. Un proyecto, que a través de Betizu Kluba, trasciende al año 2008 ya que se plantea como una exigencia y seña de identidad de EITB con intención de permanencia en el tiempo.

- Acciones específicas para el fomento de los valores cívicos entre la población escolar, en coordinación con el Departamento de Educación del Gobierno Vasco.
- Betizu Kluba dedicará una programación especial al Día sobre los Derechos Humanos de la Infancia organizado por el Ayuntamiento de San Sebastián en el mes de noviembre.
- El Parque Infantil de Navidad será objeto de un tratamiento especial informativo a través de las actividades del stand del Departamento de Justicia, Empleo y Seguridad Social del Gobierno vasco.

## BIKTIMEK GIZARTE BARRUAN TOKIA ETA ONIRIZPENA IZAN DEZATELA SUSTATZEA

Biktimek gizarte barruan onirizpena eta estimazioa aurkitzea da EITBren 2008ko "informazio-lehentasuna" osatzen duten elementuetako bat. Horregatik berariaz zainduko da biktimek parte hartzea –norberaren izenean zein talde baten izenean– antolatzen diren ekitaldietan.

- Hiruhileko bakoitzean plangintza bat antolatzea, informazio-jarraipena egiteko Covitek, Gesto Por La Pazek, Fundación Fernando Buesak eta beste biktima-elkarteek antolatzen dituzten ekitaldi eta jardunaldiei.

## IMPULSAR LA PRESENCIA, Y EL RECONOCIMIENTO SOCIAL DE LAS VÍCTIMAS

El reconocimiento y la consideraciones social de las víctimas forma parte de la "prioridad informativa" de EITB para 2008. Por ello, se impulsará su presencia y las actividades que desarrollen, tanto a título individual como colectivo.

- Planificación trimestral del seguimiento informativo de los actos o jornadas que lleven a cabo las distintas asociaciones como Covite, Gesto por la Paz, Fundación Fernando Buesa, Fundación Gregorio Ordoñez...

- Biktimak eta biktima-elkarteak aktiboki azaltzea biolentzia terroristaren inguruko programetan eta informazioetan.
- Informazio-edukiak lantzean, biktimen eta biktima-elkarteen iritziak azaltzea, batik bat giza-eskubideen urraketa, bake-kultura eta balio-heziketa aztertzen duten programa eta informazioetan.
- Terrorismoaren biktimen ikuspegia azaltzea Euskal Herriaren azken berrogei urteko historiari buruzko gaiak erabiltzen dituzten informazio, programa eta dokumentaletan.

- Presencia activa de las víctimas y de las organizaciones de víctimas en programas e información relativas al fenómeno de la violencia terrorista .
- En la elaboración de los contenidos informativos se presentará la opinión de las víctimas y de las organizaciones de víctimas. Especialmente en programas e informaciones que aborden cuestiones relacionadas con la conculcación de los derechos humanos, con la cultura de la paz y con la educación en valores.
- Inclusión de la perspectiva de las víctimas del terrorismo en informaciones, programas y documentales en las que se aborden cuestiones relacionadas con la historia del País Vasco en los últimos cuarenta años.

## INFORMAZIO-TRATAMENDUARI BURUZKO DOKUMENTU PROFESIONALA

Informazio-lehentasun modura giza-eskubideen sustapenari, biktimenganako gizartearen onirizpen eta estimazioari eta bake-kulturari zabalkundea emateak berekin dakar hainbat ekimen antolatzea enpresa barruan, EITB Taldeak azterketa eta gogoeta egin dezan, eta erabakiak har ditzan, informazio-eskubidea, komunikabideetako profesionalen independentzia eta esandako informazio-lehentasuna bateratzeko irizpideez.

- EITBren hedabideek eta beste komunikabide publiko zein pribatu batzuek gaiari ematen dioten tratamenduari buruzko diagnostikoa egitea.
- Hasierako diagnostikoa erreferentziatzat hartuta, barneko heziketa-plan bat diseinatzea eta burutzea.

## DOCUMENTO PROFESIONAL SOBRE EL TRATAMIENTO INFORMATIVO

La prioridad informativa de difusión del fomento de los derechos humanos y el reconocimiento social de las víctimas y la cultura de la paz, conlleva desarrollar a nivel interno las acciones necesarias para que el conjunto del Grupo EITB, analice, reflexione y establezca los criterios que conjuguen el derecho a la información, la independencia de los profesionales de la comunicación y la prioridad informativa reseñada.

- Realizar un diagnóstico del tratamiento actual que se ofrece a esta materia en los medios propios de EITB, así como en otros medios de comunicación.
- Diseño y realización de un Plan de Formación interno tomando como referencia el diagnóstico inicial.

- Dokumentu profesional bat lantzea, aldian behin aztertu eta berriztatuko dena, hau da, betiko "estilo-liburu" bat baino gehiago izango dena, giza-eskubideen, biktimen eta bake-kulturaren inguruko gaien tratamenduari dagozkion irizpideak finkatzeko helburuarekin.

- Ekitaldi edo jardunaldi profesional bat antolatzea, informazio-tratamenduaren gaineko dokumentua ezagutzera emateko.

- Elaboración de un documento profesional, renovable y revisable, que sea por tanto aEvaluación y transparencia.

- Organización de un encuentro o jornada profesional en la que se dé a conocer el documento elaborado sobre el tratamiento informativo.

## EBALUAZIOA ETA GARDENTASUNA

- Ekintza-Plan honen jarraipen dokumentatua egiteko asmoz, txosten zehatza egingo da 2008an informazio-tratamenduari buruz.
- Txostenean, aurretik markatutako helburuekin alderatuko da egindakoa, eta oinarri modura hartuko da 2009. urterako.
- Hiru hilean behin aurrerapen bat aurkeztuko zaio Giza-Eskubideen eta Komunikabideen gaineko Heziketarako Kontseiluari, Ekintza-Plana zein neurritan betetzen doan aztertzeko.
- Eusko Legebiltzarreko EITBren Kontrolerako Batzordea
  - Eusko Legebiltzarreko Giza-Eskubideen Batzordea.
  - Eusko Legebiltzarreko Giza-Eskubideen Batzordea.
  - EITBren Administrazio-Kontseilua.
  - Giza-Eskubideen eta Komunikabideen gaineko Heziketarako Kontseilua.

## EVALUACIÓN Y TRANSPARENCIA

- Elaboración de un informe detallado sobre el seguimiento de las actuaciones recogidas en este Plan de Actuación 2008.
- El informe será contrastado con los objetivos marcados y servirá de base para la planificación del año 2009.
- Trimestralmente se presentará un avance al Consejo de Educación en Derechos Humanos y Medios de Comunicación para analizar el grado de cumplimiento del Plan de Actuación.
- El informe anual será dado a conocer públicamente y remitido a:
  - Comisión de Control y Seguimiento de EITB del Parlamento vasco.
  - Comisión de Derechos Humanos del Parlamento vasco.
  - Consejo de Administración de EITB.
  - Consejo de Educación en Derechos Humanos y Medios de Comunicación.

EUSKO JAURLARITZA
GOBIERNO VASCO

eitb
euskal irrati telebista